

BALIO PROPOSAMENA



Gure enpresak bezeroei eskaintzen dizkien etekin multzoa da balio-proposamena. InnMaster Cosmetics enpresaren balioa zein izango den zehazteko, gaur egun merkatuaren egoerari erreparatu diogu, honela ondorioztatuz, kosmetiko ekologiko nahiz beganoen esparruan gabezia nabarmena dagoela.

Behar hau asetzeko, produktu kosmetiko jasangarri eta beganok eskainiko ditugu merkatuan, beraz, gure enpresak proposatzen duen balioa produktuen jasangarritasuna izango da. Izan ere, gure publikoak asko baloratzen du balio hau, batik bat gure kontsumitzaileak xede honen alde egiten duten bezeroak izango direlako. Gainera, eskaintza hau emateak gainerako lehiakideengandik bereiziko gaitu ez baitaude horrelako produktuan eskaintzen dituzten enpresa asko. Zerbitzu hau eskaintzeko, guk geuk ekoiztuko ditugu produktuak enpresak izango duen ekoizpen sailan.